

«12 urterekin hasi nintzen arrantza txapelketetan parte hartzen»

Gaizka Fernandez Ustarroz 17 urteko larratxotarrak Munduko Arrantza Txapelketan parte hartu berri du Almerian, jubencil mailan. Arrantza biziki jmaite duen arren, arrantzale izatea ez zaio burutik pasatu ere egin.

Lierni Ezeiza
Konta iezaguzu zer moduz joan zen Munduko Txapelketa.

Beste hainbat herrialdeetako arrantzaleekin harremanetan egotea oso aberasgarria izan da. Arrantza munduan sekulako maila dagoela konturatu naiz. Portugaldarrak eta ingelesak, adibidez, oso arrantzale onak dira. Portugaldarrak oso abilak dira, eta ingelesak oso arrantza tresna onak dituzte. Gainerakoan, nahiko gustura ibili naiz: taldeka txapeldu-norde izan gara.

Zuk Casting delako arrantza egiten duzu. Zertan datza arrantza mota hori?

Hondartzatik bertatik egiten dugu arrantza. Kanaberak hondarrean jartzen ditugu, eta nahi adina aldiz botatzen ditugu, gehienez, hiru amure-

kin. Donostian ez da oso ohikoa arrantza mota hau. Ni normalean, Angelu eta Bidarteko hondartzetara joaten naiz, arrain gehiago dagoelako. Bestalde, hondartza irekiagoak dira, eta aukera gehiago dago arrainak harrapatzeko.

Gazte gehienek beste kirol batzuk aukeratu ohi dituzte. Nola hasi zinen arrantza egiten?

Txikitan askotan joaten nintzen aita eta bere lagunekin arrantzara. 12 urterekin txapelketetan parte hartzen hasi nintzen, eta oso gustuko dut kirol hau.

Arrainak amuari lotzea zorte kontua al da soilik?

Ez. Arrantza egitea ez da bakarrik amua uretara botatzea eta itxarotea. Gure modalitatean, behintzat, teknika kontua da. Batzuetan, aldi berean bi kanaberekin aritzen gara, kate moduko bat osatuz: bat jaso, bestea bota... Abilezia kontua da. Zenbat eta azkarrago ibili, orduan eta arrain gehiago arrantzatzen dira.


Inoiz pentsatu al duzu arran-

tzale izatea, afizioa ofizio bihurtzea, alegia?

Ez. Arrantzaleena oso lan gogorra baita, eta gainera, gero eta arrain gutxiago dago. Arrantza tresnak saltzen dituen enpresa bateko ordezkari izatea, al-diz, gustatuko litzaidake. Hala ere, oraindik ere ez dut etorkizunean gehiegi pentsatu.

Donostiako zein leku duzu gustukoan arrantza egiteko? Aukera izanez gero, munduko zein txokotara joango zinazateke arrantzara?

Normalean ez dut Donostian arrantza egiten, baina neguan, Sagues ingurua leku ona da, lupiak atera ohi dira-eta. Bestalde, Ondarreta, eguraldi txarrarekin, atsegin dut. Kanpora joateko aukera izango banu, Mauritaniara joango nintzateke, 30 kiloko arrain puskak baitaude han.



Odola ematea

Ostiralean, hilak 21, Gipuzkoa-ko Odol Emaileen elkartekoak Herreran izango dira. 18.30etik 20.30era, odola emateko aukera izango da San Luis Gonzaga plazako Lagunbide lokalean.

«Angelu eta Bidarteko hondartzetara joan ohi naiz»

PARMA hotela

Itsaso aurrean.

Bainua, berogailua, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 42 80 19

EL TURISTA

KIROL ETA BIDAJETARAKO ARTIKULUAK

LEGAZPI, 6 • TEL.: 943 42 77 46